



Udako oporrak | Vacaciones de verano

Aprende euskera con tus txikis y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/udako-oporrak>

Txirrinak jo zuen eta haurrak patiora korrika irten ziren.

—Aita! **Oporrak!!**— oihu egin zuen Hodeik.

Klaseko azken eguna ospatzeko jai polit bat izan zuten eskolan: Sorgina Txirulina ipuin kontalaria joan zen, mago bat baita dantzatzeko kontzertu bat ere.

Den-denek **primeran pasatu** zuten!

Sonó el timbre y todos los niños y niñas salieron corriendo al patio.

—¡Aita! **¡Vacaciones!** —gritó Hodei.

Como era el último día de clase, tuvieron una bonita fiesta en el cole con la cuentacuentos

Sorgina Txirulina, un mago y un concierto para bailar.

¡Todos/as lo **pasaron genial!**

Hurrengo egunean Hodeik bere aitari esan zion:

—Aita... aspertzen ari naiz. Lagun guztiak herrira joan dira eta nik ez daukat norekin jolastu...

—Hodei, laztana, badakizu **buru-belarri** lan egiten dudala eta nik ere **atseden** bat behar dut eta aspalditik nago disko hau **entzun nahian**. Gauza bat egingo dugu. Diskoa entzungo dut eta bitartean, zuk liburu hau irakurri ahal duzu. **Ados?**

—Zein liburua da?

—Petra Mofeta. **Kanpaleku bati buruz** da eta laster zu udaleku batera joango zarenez, ziur nago gustatuko zaizula!

Al día siguiente, Hodei le dijo a su aita:

—Aita.. me estoy aburriendo. Todos mis amigos han ido al pueblo y yo no tengo con quién jugar..

—Hodei, cariño, ya sabes que yo trabajo **mucho (con ahínco)** y también necesito un **descanso**. Además, **quiero escuchar** este disco desde hace tiempo. Vamos a hacer una cosa. Mientras yo escucho el disco, tú puedes leer este libro. **¿De acuerdo?**

—¿Qué libro es?

—La mofeta Petra. Es sobre un **campamento de verano** y tú como vas a ir a uno dentro de poco, ¡estoy seguro de que te gustará!

Hodeik liburua hartu eta irakurtzen hasi zen:

Hodei cogió el libro y comenzó a leer:



Bazen behin Petra izeneko mofeta bat.

Petra lotsatia zen eta bere gorputzaren **usaina** oso gogorra zenez, ez zeuzkan ia lagunik.

Behin eta berriro esaten zioten:

—Petra, **alde hemendik!!** Zure usaina **jasanezina** da!!

Eta gizajoak ezin zuen usain hori kendu.

Érase una vez una mofeta llamada Petra.

*Petra era muy tímida y como **el olor** de su cuerpo era muy fuerte, apenas tenía amigos.*

Una y otra vez le decían:

—Petra, **¡fuera de aquí!** ¡Tu olor es **insoportable!**

Y la pobre no podía quitarse ese olor.

Petraren gurasoak oso **kezkatuta zeuden** berarekin. Egia da gure mofeta oso kreatiboa zela, eta beti ipuinak asmatzen ibiltzen zela eta bakarrik jolasten ondo pasatzen zuela. Hala ere, beste animaliekin jolastu behar zuen.

Horretarako, gurasoek udaleku batean **izena eman** zuten eta **agurtzeko egunean**, zelako malkoak agertu ziren Petraren masailetan!

—Baina... ez dut udalekura joan nahi! Beste animaliek ez didate kasurik egingo!

—Egon lasai, maitea. Hasieran pixka bat kostatuko zaizu baina gero lagunak egingo dituzu — erantzun zion amak.

*Los padres de Petra estaban muy **preocupados** con ella. Es verdad que era una mofeta muy creativa, siempre estaba inventándose cuentos y que se lo pasaba bien jugando sola.*

Pero tenía que jugar también con otros animales.

*Por eso la **apuntaron** en un campamento de verano, y cuando llegó el **día de la despedida..***

¡vaya lágrimas que aparecieron en las mejillas de Petra!

—Pero...¡no quiero ir al campamento! ¡El resto de animales no me harán caso!

—Estate tranquila, cariño. Al principio te costará un poco, pero luego harás amigos—le contestó su ama.

Kanpalekura heldu eta kanpin dendak montatu behar zituzten baina inork ez zuen Petrarekin lo egin nahi.

—Jo, Petra, ematen du egun osoan **turrit** egiten ari zarela!

—Barkatu ez dira **puzkerrak**, baina urduri jartzen naizenean usain hori botatzen dut...

Eta gure mofetak **bere buruarengan konfidantzarik** ez zeukanez beti zebilen **kirats** hori sortzen.

Llegaron al campamento y tenían que montar las tiendas pero nadie quería dormir con Petra.

—Jo, Petra, parece que estás todo el día **pppprrrrrrrrrrrr!!**

—Lo siento, pero no son **pedos**, sino que cuando me pongo nerviosa suelto ese olor..



Y como nuestra mofeta no tenía **confianza en sí misma**,
siempre estaba soltando esa **peste**.

Hurrengo goizean **ezkutaketan** jolasten ibili ziren.

"**Dona, dona, katona, sutondoan aitona, lepotik behera kuttuna, a ze neska-mutil tuntu**, **azeituna, babarruna, zu kanpora**" eta dortokari harrapatzea tokatu zitzaion.

Dortokak jolas hori gorrotatzen zuen bera oso motela zelako eta besteek beti ihes egiten zuten.

Hala ere, dortokak **di-da batean** irabazi zuen Petra harrapatu zuelako.

—Petra, haritzaren atzean zaude! —garrasi egin zion dortokak.

—Ez du balio! Ez nauzu ikusi! —kexatu zen Petra.

—Baina zure usaina **somatu** dut eta badakit hor zaudela.

Petra gero eta tristeago zegoen.

—Baina nola egingo ditut lagunak nire kirats honekin... —esaten zion bere buruari negarrez.

A la mañana siguiente jugaron **al escondite**

"**Dona, dona, katona, el abuelo en la hoguera, colgando del cuello el amuleto, que salga fuera el chico/a tonto, aceituna, alubia, tú fuera**" y le tocó quedársela a la tortuga.

La tortuga odiaba aquel juego porque como ella es muy lenta, siempre se les escapaban todos.

Sin embargo, la tortuga ganó en un **santiamén** porque pilló a Petra.

—¡Petra, estás detás del roble! —gritó la tortuga.

—¡No vale! ¡No me has visto! —se quejó Petra.

—Pero he **notado** tu olor y sé que estás ahí.

Petra cada vez estaba más triste.

—¿Pero cómo voy a hacer amigos con mi peste...? —se decía a sí misma llorando.

Arratsaldean gynkana bat egin zuten eta jolasten ari zirenean **bat-batean** lehoi bat agertu zen, eta despistatuta zebilen tximino bat **erasotzera** abiatu zen. Petra oso gertu zegoen eta tximinoa **laguntzea erabaki** zuen. Lehoiaren ondoan jarri eta mofetak bere usaina bota zuen.

Lehoia guztiz zorabiatuta lurrera erori zen eta animaliek oso azkar **alde egin** zuten.

A la tarde hicieron una gynkana y cuando estaban jugando, **de repente** apareció un león y fue a atacar a un mono que estaba despistado. Petra estaba muy cerca y **decidió ayudar** al mono.

Se puso al lado del león y soltó su olor. El león cayó al suelo totalmente mareado y todos los animales **escaparon** rápidamente

—Petra, eskerrik asko! Bizia salbatu didazu!—esan zion tximinoak eta gogotsu besarkatu zuen.

Beste animaliek Petra **inguratu** eta musuak eman zizkieten. **Horrez gain**, hain txarto tratatzeagatik barkamena eskatu zioten **damututa sentitzen** zirelako.

Eta gure mofeta pozik baino pozago zegoen!



—Petra, ¡muchas gracias! ¡Me has salvado la vida! —le dijo el mono y la abrazó muy fuerte.
El resto de animales la **rodearon** y le dieron besos. **Además**, le pidieron perdón por haberla
tratado tan mal. Se **sentían arrepentidos**.
¡Y nuestra mofeta estaba más feliz que una perdiz!

Egun horretatik aurrera lagunak egin ziren eta Petra urduri sentitzen ez zenez, bere usaina
kontrolpean zeukan.

Eta uda **ahaztezina** izan zen Petrarentzat!

*A partir de ese día se hicieron amigos y como Petra ya no se sentía nerviosa,
tenía **controlado** su olor
¡Y fue un verano **inolvidable** para Petra!*

—Aita, ipuina amaitu dut. Oso polita da!

—Pozten naiz, laztana. Nik ere disko osoa entzun dut. Zer, **izozki** bat hartzera joango gara?

Eta horrela Aitak eta Hodeik elkarrekin beren oporraz gozatu zuten.

—Aita, he terminado el libro. ¡Es muy bonito!

—Me alegro, cariño. Yo también he escuchado entero el disco.

¿Qué? ¿Vamos a tomar un **helado**?

Y así Hodei y su aita disfrutaron juntos de sus vacaciones.